

Kaixo Javier,

Pili Odriozola Bikendi Olaizola Iparragirre Urbieta Odriozola Arregi Orbegozo naiz.

Ez ditut nire zortzi abizen euskaldun idatzi modan dagoelako baizik eta nire amonak eta bere anaiak omentzeko.

Oso gustora egon nintzen Sanagustinen egin zenuten liburuen aurkezpenean, eskerrikasko egin dezuen lanagatik.

Liburuan testigantza ematen jardun duen ezagun bati eskatu diot zure helbide elektronikoa, pena dut neuk ere parte hartu ez izana,

Liburua eskuetan hartu bezain pronto hasi nintzen umetan nere amona Sabinari horrenbeste aldiz entzundako bere anai fusilatuaren izena bertan azaltzen ote zen begiratzen.

Nire amona Agiteko Sabina Olaizola Arregi zen eta bere bizi guztian gogoratu zen bere anai maiteaz, Simon Olaizola Arregi, eta berari entzun izan genion nola Hotel Londresen lana egiten zuen eta bere lankide batek abertzale izateagatik salatu zuela eta Hernanin fusilatu zutela.

Tia Paulina, bere emaztea, ere ezagutu genuen, senarra galdu ondoren semea hartu eta Argentinara joan zen bizitzera.

Gogoratzen naiz baita ere Ameriketatik bixita etortzen zenean lehengusu denak nola elkartzen ginen attitte ta amaman sukaldean bere kontu interesgarriak entzuteko, oso emakume moderna iruditzen zitzaidan eta oso gustora egoten nintzen haren abenturak entzuten. Gero amonak ume denak bidaltzen gintuzten sukaldetik jolastera bere kontuetaz lasai hitzegin ahal izateko.

Orain dela hogeita hamar bat urte bere seme Jose Luis bere emazte eta bi alabekin Buenos Airestik etorri zen eta Loiolan elkartu ginen familiko kide asko.

Sabinak bere lehenengo semeari Jose izena jarri zion, nire aitari, bere aita ere Jose zelako, baina bigarrenko semea jaio zenean ez zen zalantzarik izan Simon izena jarri zioten.

Nere amaren ama berriz Euzkitzeko Estanislada Iparragirre Orbegozo izan zen, Olatz aldekoak ziren nire amaren aldeko aititte ta amama, ezkondu eta Gasteizera joan ziren bizitzera.

Bere anai gazteena gerran hil zela kontatzen zuen amonak, bere Patxi Burni maitea, beti eman dit atentzioa bere ezizenak, Patxi Burni, zergatik ezizen hori galdetzen diot nere amari eta Azpeitin mekanika tailer txiki bat zuelako izango zela esaten du.

Beraz argitaratu dezuen liburuan azaltzen den Francisco Burni eta Francisco Iparragirre Orbegozo pertsona berdina direla adierazi nahi nizuen.

Patxi frentera joan eta han zauritu eta hil zela jakin zuen nere amamak baina bere gorpua Gernikan lurperatu zutela handik urte batzuetara jakin izan zuen eta orduan lasaitu zela kontatzen du nere amak.

Nire amona Estanisek ere semeari Francisco izena jarri zion, baina hau haurra zela hil zen.

Gasteizen ere izan zituzten komeriak nere aititte ta amamak, goardia zibilen koartel ondoan bizi izan ziren eta garai hartan ez ziren euskaldun asko Vitoriyen, Auzoko emakume batek salatu zuen nire amona Estanis abertzale izateagatik eta kalabozora eraman zuten, egun bat pasa omen zuen bertan, haurdun zegoen eta ondorioz umea galdu zuen. Nire amak bost urte izango zituela esaten du, hau da 1939 izango zen.

Pena dut liburua idazten ari zinatela informazio hau eman ez izana baina behintzat Patxi Burni Patxi iparragirre Orbegozo zela jakin arazi nahi nizuen. Loiolako Olatz ondoko Euzkitze baserrian jaiotakoa. Baserri honek ez du existitzen gaur egun eta badu honek ere bere istorioa, nere aitaren jaiolekua den Munategi baserriak zuen bezela, baino gertaera hauek beste liburu bat eskatuko lukete.

Besarkada bat, eskerrikasko.

Pili Odriozola

---

Kaixo Javi,

Ea ba web gunerako argazki batzuk lortzea dudan.

Nire amonek ba zituzten beren anaien argazkiak eta osaba izebei galdetuko diet ea gorderik dituzten.

Hurrengora arte,

Pili